


Euskal AEko eraikuntzaren kostuek ez dute aldaketarik izan (%0,0) 2011ko irailean, aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2010eko irailetik 2011ko irailera) eraikuntzaren kostuak % 1,9 igo dira.

EUSTATen datuen arabera, Euskal AEn eraikuntzako kostuen indizeak ez du aldaketarik izan (% 0,0) 2011ko irailean, aurreko hilabetearen aldean; baina hilabete horretako urte arteko tasa % 1,9 igo da.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2011



(*) Gehikuntza irailako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2011ko irailean lanekuaren kostuak eta lehengaien kostuak ez dute aldaketarik izan (% 0,0).

Eraikuntza eta obra zibila azpisektoreetako lehengaien kostuek bestelako bilakaera izan dute irail honetan: obra zibilean kontsumitu diren lehengaien kostuak % 0,4 egin du gora eta eraikuntzako kostuek, aldiz, % 0,1 egin dute behera. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaera aztertuta ikusten da eraikuntzako lehengaien kostuek % 1,3 egin dutela gora eta obra zibileko kostuek % 4,8 egin dutela gora.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handiena izan dutenak, besteak beste, petrolioaren birfinketa

(% 23,3); energia elektrikoa, gasa eta lurrina (% 21,5) eta industria kimikoa (% 7,4) sektoreak izan dira. Baina ondoren ematen diren sektoreetako lehengaien prezioak urte batetik bestera (2010eko irailetik 2011ko irailera) txikitu egin dira edo igoera txikiagoa izan dute: erauzteko industriak (-% 1,8); metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (% 1,1) eta altzarien fabrikazioa eta manufakturen beste industria batzuk (% 1,2).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2011KO IRAILA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	119,9	0,0	1,9	1,2
ERAIKINAK	118,8	0,0	1,4	0,9
OBRA ZIBILA	123,7	0,3	3,9	2,4
LEHENGAIEN KOSTUA	119,1	0,0	2,1	1,2
ERAIKINAK	117,8	-0,1	1,3	0,8
OBRA ZIBILA	124,0	0,4	4,8	2,8
LAN-ESKUAREN KOSTUA	122,9	0,0	1,5	1,5

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.